

# Sarrera

## Festaren analisi eta politika feministak: ainguraketak eta erronkak

*Miren Guilló Arakistain*<sup>1</sup>

*Festa da festa  
herri zahar hontan  
negarra begitik  
daraman tenpesta! (...)*

Itxaro Borda (1978)

Festaren gorputz-memorian<sup>2</sup> alaitasuna, norbanakoa nahiz kolektiboa, osagai nagusia izaten da maiz: afektuak, aliantzak, konplizitateak, irribarreak eta dantza. Subertsioz eta plazerez ehundutako harremanak eta gorputzak gara festetan<sup>3</sup>. Baina festa, *negarra begitik daraman tenpesta* izateaz gain, min eta negarrerako parada ere bada. Hauxe paradoxa. Izan ere, festa ez da sozietatetik aparte dagoen zerbait, sozietaterik gabe ez baitago festarik. Pozaz gain, gatazkak eta minak ere azaleratu, nahastu edota irudikatu egiten dira festetan. Kultur (sistemen) adierazpen ahaltsuak direnez gero, jendarte, herri, talde edota komunitate jakinen ezaugarri guztiak islatzen dira haietan.

Festak, fenomeno legez, paradoxa bezainbat konplexutasun aurkezten ditu. Konplexutasunaren parte izango dira festa-eredu ezberdinen (hegemonikoago edo

1. Eskerrak eman nahi dizkiet bereziki Iratxe Retolaza, Mari Luz Esteban, Markel Ormazabal, Margaret Bullen, Edurne Epelde eta Idoia Trenorri, egindako ekarpenengatik. Horrez gain, esperientzia gorputua norberak duen ezagutzaren parte den heinean, nire bizitzan jaien gaiaz pentsatzeko inportanteak izan dira Elgoibarko Gaztetxean, Bilgune Feministan, Donostiako Sardiñerak kofradian, eta oro har, giro feministan izan ditudan esperientziak eta konplizitateak.

2. Teresa Del Valle (1997) gorputz-memoriak ikertu ditu, memoria eraikitze mekanismoen lanketa zein oroimenaren egitura-ardatzak. Del Valleren aburuz memoria dinamikoa da eta etengabe eraldatzen da: iraganeko gertakariak ulertzen ditugu egungo ikusmolde eta beharren arabera, baita etorkizunaz espero dugun horren arabera ere. Gizaki guztiok parte hartzen dugun memoria litzateke, emozio desberdinen dentsitatea bizitzeko eta sinbolizatzeko gaitasuna dugulako. Norbanako mailan zein taldean erabiltzen den memoriak ari da. Ez litzateke horrenbeste memoria diskurtsibo bat izango, *embodiment* kontzeptuarekin eta gorputzarekin lotzen dugun memoria bat baizik: gorputz-esperientziatik, barneratze pertsonala eta prozesu emozionala bere baitan dituen memoria, alegia. (Del Valle, 1997)

3. Ronald Barthes-en hitzetan, «festa itxaroten dugun hori da» eta, Roger Cailloisek «festa baten oroitzapenean eta beste festa baten esperoan bizi garela» dio (Delgado, 2004: 77).

alternatiboago) arteko aurkakotasunak, trukeak edota uztartzeak. Festetan herri edo komunitate bat irudikatzen den era berean, festetan, bai antolatzaile bai parte-hartzaile moduan, parte hartzen dutenen ezaugarriak ere islatuko dira. Hala, gogoetarako pribilegiozko leku bilakatzen zaigu festen ikerkuntza: horren bidez, batetik, jendarte baten bizimodu sozialak eta norbanakoaren bizitzak egituratzeko moduak ezagutu ditzakegu, eta, bestetik, jendarte horren eraldaketarako eta disidentziarako estrategiak ere hauteman.

Festen inguruan egindako ikerkuntzari dagokionez zenbait ideia orokor aipatuko badira ere, genero-ikuspegitik egin diren ikerketei emango diegu lehentasuna liburu honetan, kultur sistema eta festak ulertzeko ezinbestekoa iruditzen baitzaigu genero-harremanak eta ezberdintasunak nola sortzen eta birsortzen diren ezagutzea. Era berean, jaietan sortzen diren eraldaketak genero-aldaketa orokorragoak ulertzeko ere balia daitezke; izan ere, une horietan, esplizitu egiten dira gatazka latenteak zein aldarrikapenak, eta sortu nahi diren bizimodu alternatiboak eta eredu justuagoak gorpuzteko aukerak.

Gai horiek guztiak eta gehiagok akuilu antolatu genuen «Jai-ereduak genero ikuspegitik: begirada antropologiko bat Euskal Herriko errealitateari» ikastaroa UEUn, 2015eko Udako Ikastaroetan<sup>4</sup>. Antropologia feminista eta teoria feminista ardatz, festaren ertz askotariko eta konplexuez aritu ginen, jakintza elkarrekin eraikitzeke adierazpide, abiapuntu eta era desberdinak uztartuz. Ikastaro horretan, batetik, festen ulerkera eta balio sinbolikoa eta tokian tokiko etnografiak analizatu ziren genero-ikuspegitik; eta, bestetik, abian dauden zenbait prozesu eta egitasmok ezagutzeko parada izan genuen, festa-politika feministetan sakonduz. Izan ere, zenbaitzuk izan dira gurean, festen esparruan, sortu diren ekimen, aldarrikapen eta taldeak (Emagin, 2013; Epelde, Aranguren eta Retolaza, 2015: 551-558)<sup>5</sup>. Hala, jardunean dabilzan subjektu eta eragile desberdinen arteko elkarrizketa izan zen ikastaro hura: ikerkuntzan, festa-antolakuntzan, kultur sorkuntzan zein mugimendu feministan dabilzanan artekoa. Hauxe da, beraz, liburuaren ezaugarri nagusia. Feminismoan, halaber, lotura estuak izan dira betidanik teoriaren, metodologiaren eta ekintza politikoaren artean; zaila da, beraz, teoria eta praxiaren arteko banaketa

---

4. Ikastaroa Antropologia Feministaren alorrean ikertzen gabiltzan, eta UEUko Antropologiako Saileko sailburu garen Irantzu Fernandez, Miren Guilló, Itxaso Martin, eta Maria Ruizek antolatu genuen.

Ikastaroaren antolaketaren beste ernamuin bat hau da: Emagin Dokumentazio eta Ikerkuntza Zentro Feministan jai-ereduen hausnarketa eta prestakuntzan egindako lan kolektiboa.

5. Informazio gehiago izateko jo lan hauek: batetik, Emaginek (2014) egindako *Festa dezagun gaurdanik geroa* dokumentala, preseski festen gaineko gogoetak eta ekimen andana jasotzen dituen; bestetik, Eduarne Epelde, Miren Aranguren eta Iratxe Retolazak (2015: 551-558) *Gure Genealogia Feministak* ikerlan mardulean jasotzen dituzte zenbait ekimen: besteak beste, Irun eta Hondarribiko alardeen, Azpeitiako eta Donostiako danborraden edota Zuberoako pastoralen karietara sortutako ekimenak, edota Bilboko Mamiki konpartsa, Donostiako Sardiñerak kofradia edota EHBFFren Emakumeak Plazara moduko ekimenak ere.

zurruna egitea. Eta zaila izateaz gain, maiz ez dio errealitateari erantzuten; banaketak ezagutza ekoizteko eta zirkulatzeko moduen konplexutasuna sinplifikatu eta berau hierarkizatzeko arriskueta paratzen gaituelarik (Esteban, 2015).

Bilduma honek analisi, gako eta erronka horietan sakontzen jarraitzeko ariketa kolektiboa izan nahi du, baina, ez da hemn Euskal Herriko festa guztien erretratu xehatua egingo, eta ez dira egun aurki ditzakegun ekimen zein gogoeta guztiak jasoko; larre zabal eta sakonegia litzateke hori. Bada, lekututako zenbait begirada uztartzen dira eginahal zabalago horretan ekarpena egiteko borondatez; eta jardunean jarraitzeko begiradak, galderak eta erronkak proposatu.

Horrenbestez, marko sozial eta teoriko desberdinak partekatzen dituzten festa-subjektu feministen gogoetak bildu dira. Testuen gaiak askotarikoak dira: batzuk ezagunagoak zaizkigu, beste batzuek, ordea, periferikoagoak irudi dezakete. Testuen baturak, ordea, testuingurua zabal ulertzeko tenorean kokatzen gaitu. Idazketa-estiloek dagokienez, tonu zein molde ugari bildu dugu: akademikoagoak, bizipen jakinen kontakizunak, egitasmoen sistematizatzak, festa-antolakuntzaren inguruko gogoetak eta beste. Izan ere, askotariko kontakizun, bizipen eta esperientziak sistematizatuz sortzen baita teoria. Horixe dugu jakintzaren helduleku kolektiboa.

## ***FESTAREN ARKITEKTURA ANTROPOLOGIKOAK ETA GENEROKOAK***

Manuel Delgadok (2004) gogorarazi digunez, biziera sozialaren eremu garrantzitsuak dira festak, egunerokotasunarekin hausten duten praktika kolektiboak. Denbora eta espazioaren mugak ezartzen dira jaietan, baita komunitate ospatzailearen barne-eta kanpo-mugak ere. Eguneroko baldintzak alda daitezke festetan, baita irauli ere. Horrela, festak bizitzeko manierak askotarikoak izan dira garai eta komunitate desberdinetan, eta aldaketak ere ez dira txikiak izan. Esaterako, *mendebaldeko* jendarteetan, asko aldatu da festen testuinguru eta izaera: laborantza-jardueraren galerak (eta, ondorioz, horrek bizitza soziala markatzeko moduen galtzea), industrializazio- eta urbanizazio-prozesuek, turismoak, ikuskizunen kultura edota kontsumoaren kulturaren gisako aldagaiek eragina izan dute festen izaeraren garapenean, jendarteko eremu guztietan nola, kulturaren eremuan ere gertatu den merkantilizazioa ahaztu gabe. Horren ondorioz, festaren kontzeptua ere lausotu zaigu bera ikertzean, festa denaren eta ez denaren arteko mugak lausoagoak direlako testuinguru garaikideetan.

Zer da, ordea, festa? Antonio Ariño eta Pedro García (2012a: 51) definizio hau eskaini dute:

Ospatzeko helburuz denbora eta espazio jakinei lotutako errituen sekuentzia edota ekintza zein ekitaldi multzoan dautzan praktika kolektiboak dira festak. Ospakizun horrek subjektu ospatzaileak ospatzen den subjektuari ematen dion balio, sakraltasun eta transzendentziaren adierazpen praktiko eta sinbolikoa adierazten du. Festak gertakizun bereziak dira, konplexuak eta paradoxikoak ere. Egitate sozial osoa, eguneroko

bizitzarekin harreman dialektikoan definitzen da, lanaren ohiko denborekin hautsiz eta parte-hartzaileak hunkiberatasun-giroetan murgilduz. Zeremonia solemnea eta bat-bateko dibertsioa nahasten ditu, tradizioari errespetua berrikuntza ozarrekina, espiritualtasuna gorpuztasunarekin eta intimoa publikoarekin. Eskuragaitza den errealitatea iradokitzen duen ekintza sinbolikoa, festa polisemikoa ere bada: identitate kolektiboen aktibatzailea eta erreproduzitailea, kalapiten eremu ere izan daiteke, hierarkia sozialak adierazten/indartzen ditu eta transgresioak sor ditzake<sup>6</sup> (Ariño eta García, 2012a: 51).

Bestetik, ikusi dugunez Ariño eta García (eta beste zenbait antropologok) Marcel Maussen (1991) *egitate sozial osoa* kontzeptua erabili dute festa definitzeko: festek mundu-ikuskera eta proiektu sozial askotarikoak barneratzen dituzte, baita aurkakoak direnak ere. Taldeak kohesionatu bezainbeste, jar baititzake zalantzan taldeak.

Folklorearen ikertzaileek aztertu zituzten festak XIX. eta XX. mendeen hasieran, laborantza-bizitzan fenomeno ikusgarria zelako, egunerokotasunaren oposizio gisa (Roma, 1996: 204). Gerora, hainbat etnografok eta antropologok jardun dute esparru horretan. Analisirako zutabe izan zen Émile Durkheimen (1984) obra: sakratuaren eta profanoaren banaketa eginez (eta biak gurutzatzen diren esperientzia sozialak ikertuz), «denboraz gaindiko denbora» gisa definitu zituen jaiak. Errituaren bitartez aldi-aldi esperientzia kolektiboa kontzentratzen da, eferbeszentzia kolektiboa sortuz. Antropologo funtzionalistek, beren aldetik, ordena soziala bermatzeko fenomeno gisa ulertu zituzten festak: arau-hausteak posible dira, baina, festa ostean oreka eta normaltasuna are indartsuago agertuko dira (Roma, 1996: 205)<sup>7</sup>. Ikuspuntu horrek taldearen egonkortasuna gainbaloratu izan badu, beste zenbait autoreren analisiak festaren izaera dinamikoa erakutsi dute: esaterako, Arnold Van Gennepen igarotze-errituen teoriak<sup>8</sup>, edota bere lana liminalitatean ardatzu zuen Victor Turnerren (1982) ekarpenak. Liminalitate egoeretan sortzen da hierarkiak desantolatzen dituen antiestruktura, eta horren baitan communitasa: egituraz kanpo

---

6. Jatorrizko hitzak: «(...) entendemos por tal una práctica colectiva consistente en un conjunto de actos o secuencias ritual ligados a un espacio y un tiempo determinados, mediante los cuales se celebra algo. Tal celebración supone la expresión práctica y la simbolización del valor, sacralidad o trascendencia que el sujeto celebrante otorga al sujeto celebrado. La fiesta es, pues, acción extraordinaria, pero también compleja y paradójica: hecho social total, se define en relación dialéctica con la vida cotidiana, rompiendo el tiempo ordinario de trabajo y sumergiendo a los participantes en un ambiente que propicia la emotividad. Mezcla la ceremonia solemne y la diversión espontánea, el respeto a la tradición con la innovación desenfadada, lo espiritual con lo corporal, lo íntimo con lo público. Acción simbólica capaz de evocar una realidad inaccesible, la fiesta es también polisémica: eficaz activadora y reproductora de identidades sociales, sirve también como terreno de disputas, como afirmadora de jerarquías sociales y como generadora de transgresión» (Ariño eta García, 2012: 51).

7. Josefina Romaren (1996: 205) ustetan, ikuspegi honek gertakariaren alderdi soil bati erreparatzen dio, zapalduen kooperazioa ziurtzat jotzen baita eguneroko zapalkuntzara itzultzean: «Festa segurtasun-balbula gisa ikusten da, transgresio-parentesi horren ostean aurreko egoera eta ordenara itzuliko dena».

8. Van Gennepen igarotze-errituen teoria festa-errituen eremura eramanean, izaera dinamiko horren agerpena ahalbidetu du eta talde-usteak argitzen lagundu du (Roma, 1996).

gertatzen da eta ohiko harreman sozial eta hierarkiez haragoko loturak sortuko dira bertan, ordena soziala ezeztatuz (Roma, 1996; Delgado, 2004; Segalen, 2005)<sup>9</sup>.

Izan ere, festa-antropologiaren ikergaiak askotarikoak izan dira. Esaterako, Georges Bataillek eta Roger Caillousek festak gatazka eta suntsiketarekin duen harremana aztertu zuten; eta Mikhail Bakhtinek<sup>10</sup>, aldiz, festek (esate baterako inauteriak) ordena hegemonikoaren disidentziarako zuten potentzialtasuna nabarmendu zuen (Roma, 1996: 207; Delgado, 2004: Bullen eta Egidio, 2003). Eta badira, festaren antropologian funtsezkoak izan diren zenbait gai: denborazkotasuna, identitate-prozesuak eta espazioa kasu. Festetan denborak bestelako dimentsio berezia hartzen du, eguneroko eta laneko denboretatik urrunduz. Jaiak irakurtzeko modu jakinetan banatzen (eta gurutzatzen) dira denbora profano eta sakratuak; egunerokotasunaren eta lanaren denborak zein festa- eta ospakizun-denborak. Jai-denboraren sarreran esperientzia hori bizitzera garamatzen atalasea dugu: kaosa, bestetasuna sortuko da, eta, gerora, festa ostein, gure talde sozialean ezagutza berriekin birkokatuko gaitu (Roma, 1996: 209).

Identitate-prozesuen ikerketa ere esparru emankorra izan da, talde-identitateen adierazpen-eremu diren heinean. Komunitateak bere burua erakusten du, bai talde-kide berriei baina baita kanpo-gonbidatuei ere (Roma, 1996: 211; Bullen eta Egidio, 2003). Identitateak ospatu egiten dira, eta horrek arrisku-atalasea pasatzea dakar:

Egiaz, festa kultura baten parte edo kultura baten adierazpen moduan ulertzeaz gain, kultura baten interpretazio moduan ulertuz gero, ohartuko gara nola erritmo azkarrean eta deskripzio kontzentratuz erreproduzitzen duen bere kideen, erakundeen, segmentuen eta besteren egitura eta elkarreragina. Irakurketa identitarioa hurbilketa aproposa da, taldea bera delako erakusten dena, bere burua errepresentatzen duena, aitzitik, ez ispilu moduan, baizik hizkuntza propioaren inbertsio, desplazamendu, bihurtura eta azentuetan. Haatik, ez dugu utzi behar *communitas* sentimenduak harritu gaitzan: ez datza desberdintasunak ezabatzean, ez gauza bera esperimentatzean, aitzitik, ikusi behar dugu festa onzi baten moduan, non talde desberdinak lehiatzen eta elkarlanean jarduten duten jendartearen eta haren artikulazioen inguruan nork bere bertsioa emateko kultur edukien bitartez, liminaltasunaren putzua ikusteko eta bertatik edateko azaltzen diren bitartean (Roma, 1996: 213)<sup>11</sup>.

9. Bat-batekoa, ideologikoa edota arautzailea da *communitas* (Roma, 1996). Turnerren festa-teoria zabalago azalduko du Margaret Bullenek lehen atalean, Alardearen fenomenoarekin irudikatuz

10. Mikhail Bakhinen lana ere erreferentziazkoa izan da festen analisisietan; interesgarria da Erdi Aroan herri-kulturaz egiten duen analisia, baita aratusteez ere. Horieta, herri-kultura irudikatuko da eta aurkakotasun bitarrak inbertitzen dira (Roma, 1996: 207; Delgado 2004).

11. Jatorrizko hitzak: «De hecho, si entendemos la fiesta no sólo como parte de una cultura o como expresión de una cultura, sino como interpretación de una cultura, observaremos cómo reproduce a un ritmo acelerado, y en una descripción concentrada, la estructura y la interacción de sus componentes, instituciones, segmentos, etc. La lectura identitaria es una aproximación pertinente, porque es el mismo grupo que se muestra, que se representa a sí mismo, pero no como en un espejo, sino a través de las inversiones, desplazamientos, torsiones y acentos propios de su lenguaje. Sin embargo, no hemos de dejarnos sorprender por el sentimiento de *communitas*: no se trata de borrar las diferencias, ni de experimentar lo mismo, más bien hemos de ver la fiesta como un recipiente donde los diferentes grupos compiten y colaboran dando su versión de la sociedad y sus articulaciones a través de contenidos culturales, mientras se asoman para ver y beber en el pozo de la liminalidad» (Roma, 1996: 213).

Hortaz, Romaren hitzei jarraituz esango genuke festak jendartearen isla zuzena baino gehiago, isla eta printza askotarikoak batzen, gurutzatzen, banatzen, borrokatzen eta uztartzen diren eremu direla. Etengabe mugimenduan dauden printzak, distirak eta erreflexuak.

Festak komunitate organikoaren ideia ilusioa indartzen du; egiaz, ordea, egunerokotasunean ikusteko zailagoak diren kontraesan eta gatazkak azaleratzen dituzte. Zentzu horretan, identitateen auzia paradoxikoa izan ohi da, Delgadoren ustez (2004: 92): komunitate-identitatea eta horren muga zein onarpen-irizpideak ezartzen badituzte ere, ustez identitate-jatorria duen ordena horretan identitatea ez delako benetako ardatza. Hori ageriko agertzen zaigu, esaterako, liburuan agertzen diren tokian tokiko zenbait etnografiatan. Horregatik zehazki garrantzitsua zaigu kulturaren ulerkeran pausatzea, kulturaren interpretazio hegemonikoek *emakumeak*<sup>12</sup> baztertzeko modu desberdinak zilegi egiten baitituzte (Maquieira, 1998; Bullen eta Egido, 2003; Bullen, 2005).

Euskal testuinguruan ere festaren antropologiak egin du bere bidea eta zenbait lan etnografiko mugari izan dira bide horretan. Hainbat adibide hauexek lirarteke: Teresa Del Valle (1988) Korrika ekimenaren espazioa eta hizkuntzaren errituak analizatu zituen; Kepa Fernández de Larrinoak (1997) emakumeen parte-hartzea ikertu zuen Zuberoako maskaradetan; Margaret Bullenek (1997-2016) alardearen gainean ekoizpen emankorra izan du; Roldán Jimenok eta Jose Ignacio Homobonok (2004) festa, erritua eta identitateen gaineko artikulu-bilduma mardula koordinatu zuten; Farapi (2009) antropologia arloko kooperatibak Gipuzkoako jaien genero-analisia osatu zuen; Beatriz Moralek<sup>13</sup> (2014) Donostiako danborradaren genero-ikerketara koordinatu zuen; edota Aitzpea Leizaolak zuzendu zuen *Abordatzera!* dokumental etnografikoa (2013)<sup>14</sup>.

Aipaturiko zenbait ikerlanek emakumeen agentzia etnografiatu eta aztertu dute. Alardearen ikerketetan kasu, argi ikusten da emakume askoren erresistentzia gaitasuna, festaren zirrikituak aldarrikapenak materializatzeko erabiltzen dituztelako. Herri-mugimenduen festa-politiketan ere ikus daiteke disidentzia hori: jai-ereduaren inguruko hausnarketak aldarrikapen desberdinetan materializatzen dira, kontsumo-ereduaren eraldaketan, kasu. Feministek antolatzen dituzten jaietan ere beren ideologiak islatzen dira. Une-gune horiek parada eskaintzen dute ordena nolabait iraultzeko. Festa amaieran egunerokotasunera itzultzeak ez du esan nahi, ordea, normaltasunera itzultzen garenik. Festak bizi egiten direnez, desio dugun hori festa-abagune hartan gorpuztu izanak memoria uzten du azalean. Ez gara lehengoak

12. *Emakume* eta *gizon* kontzeptuak kategoria sozial gisa erabiliko ditut.

13. Margaret Bullen, Xabier Kerexeta, Savina Lafita, Silvia Loza eta Luz Maceira kideekin osatutako lantaldean.

14. Iberiar penintsulako festa-antropologiaren garapenean aitzindari izan dira zenbait autore: hala nola, Julio Caro Baroja, Teresa Del Valle, Isidoro Moreno, Joan Prat, Josefina Roma, edota Honorio Velasco. Aipagarri ditugu, baita ere, garaikideago diren Antonio Ariño, Margaret Bullen, Manuel Delgado, Pedro García, Juan Ignacio Homobono, etab.

izango, eta nolabait, izango du eragina gure egunerokotasunean ere. Haragiaren memoria egunerokotasunean materializatzen da. Gorputz-ezagutza berriekin birko-  
katzen baikara festa ostean.

Genero-ikuspegia garatu duen festa-antropologia, beraz, liburu honen helduleku eta zimendu ere bada. Sarrera honetan festaren antropologiari hurbilpena egin arren, liburuaren lehen atal nagusian, Margaret Bullen eta Laura Muelasek festak genero-ikuspegitik aztertzeko zenbait ainguraketa emankor eskainiko dituzte. Bullenek *genero-sistema* kontzeptua tentuz eta mimoz xehatu du bere atalean; izan ere, autorearen hitzetan, funtsezkoa da jendarte bateko genero-sistema osotasunean ulertzea, kultur sistema eta jai-eredua aztertu ahal izateko. Era berean, festa bera espazio pribilegiatu gisara aurkezten du kultur sistema eta genero-sistemaren arteko uztarpena arakatzeko. Beraz, jaien antropologiara hurbiltzen gaitu autoreak, tarteka alardearen adibidean oinarrituz.

Azken hamarkadetan generoaren ulerkerari ekarpen esanguratsuak egin zaizkio eta horrek errealtateen begirada konplexuago eta emankorragoa ahalbidetu du: «maskulino/femenino dikotomia zurrunetatik eta ikuspegi biologizistetatik» urruntzen den *genero* kontzeptuaz ari gara, «performatiboa, harremanezkoa, aldakorra, konplexua eta materiala» dena; era berean, eguneroko agentziari, «jarduteko eta ekiteko gizaki guztiek dena delako egoeretan duten ahalmen askotarikoari erreparatzea ahalbidetzen duena eta ez bakarrik egiturei edota erakundeei, ohikoa den bezalaxe» (Esteban, 2012: 29-30).

Antropologiaren eredu androzentrikoei kritika eginez, 1960ko eta 70eko hamarkadetatik aurrera antropologo feministek testuinguru sozial, politiko eta ekonomiko askotarikoak aztertu zituzten, haietan gertatzen ziren baldintza, esperientzia eta genero-errepresentazioak alderatuz (Stolcke, 2004: 82). Garai hartan menperakuntzaren kausak aztertu zituzten, eta gerora diziplina berak begirada konplexuagoa garatuko zuen, testuinguru askotarikoetan sortzen diren botere-harremanak gorputzetan nola sortzen/gertatzen diren analizatuz eta kategoriak birpentsatuz. Sexu eta genero dualismoa auzitan jarri, eta *sexu* zein *sexualitate* kontzeptuak gizarte- eta kultura-eraketa moduan analizatu zituzten hurrengo hamarkadetan. Botere-sistema heteroarautzailea eta gorputz- zein sexu-praktika jakinen hierarkia analizatu ziren (Rubin, 1989; Stolcke, 2004). Generoa, praktika multzo baten errepikapenez materializatzen dena litzateke; sexua, aldiz, horren bitartez eraikitzen dena (Butler, 1990; Stolcke, 2004). Generoaren antolaketa soziala, derrigorrezko heterosexualitatearen<sup>15</sup> baitan taxutuko da.

---

15. Derrigorrezko heterosexualitateak azaltzen du nola sexu femeninoa eta maskulinoa izendatutako gorputzei rol espezifikoak ezartzen zaizkien eta desioa aurkako sexuarengana bideratzen den, bi sexuen arteko osagarritasun eta antagonismoaren ideia faltsuen bitartez eta bien arteko hierarkia mantenduz. Ikus, esaterako, Wittig (1980), Rubin (1986), Rich (1986), Lorde (2003). Gerora *heteroaraua* kontzeptua hedatu izan da. Festetan heteroaraua zenbait artikulutan jorratuko den gaia da.

Jakintza-testuinguru horretan definitu zuen Raewyn Connellek (1987) *genero-sistema* kontzeptua «estruktural» gisa. Baldintza materialek eta kontzeptualizazio sinbolikoez elkarri eragiten dioten sare konplexua litzateke genero-sistema. Esanahi eta egitura horien sarean kokatzen da norbanakoa, sexu-identitatean eraketa eta generoaren praktika era performatiboan gorpuztuz (Connell 1987, 1999; Bullen eta Hernandez, 2010). Genero-sistemaren kontzeptualizazioak berariaz dakar aurretik aipatutako kategoriak zalantzan jartzea, botere-harremanen analisia eta sexuaz gain testuinguru horretan gorpuztuz baten esperientzian ardatzen diren beste hainbat aldagai kontuan hartzea. Izan ere, generoa ulertzeko era harremanezko eta konplexu horretan aldagai desberdinak artikulatzen dira, emakume eta gizon izatetik harago doazenak, interseksionalitatearen ikuspegitik.

Eta hala, dispositibo sozial moduan ulertutako festek tokian tokiko genero-sistemaren ezaugarriak ezagutzera garamatzate.

### ***KULTURA EREMU DINAMIKO GISA. TRADIZIOAK MUGIMENDUAN***

Ez gara sarrera honetan kultura bezalako kontzeptu emaraunduan sartuko, baina beharrezkotzat jotzen ditugu zenbait ohartarazpen. Oraindik ere, badiraute suposizio desegokietan oinarrituz diskurtso erlatibista bat sortzen duen kulturaren irakurketa esentzialistek eta estatikoez. Molde horren arabera, kultura homogenea eta harmonikoa litzateke, inguruko «kulturez» islatua den osotasuna (Maquieira, 1998: 181). Horri aurre eginez badugu kulturaren ikuskera dinamiko, hainbat antropologo feministak baliatu dutena festaren azterketan ere (Maquieira, 1998, 2001; Del Valle 2003; Bullen eta Egidio, 2003, Bullen, 2005; Esteban, 2012; Esteban eta Hernández, 2016). Bullen eta Egidoren (2003: 33) hitzetan, «Kultura dinamiko da, etengabeko negoziazio eta birdefinizioan dago eta aldatzen da etengabe aktore sozialek euren identitatea eraikitzeke hautatzen dituzten ezaugarri eta trazuen, taldeen arteko interrelazio eta prozesuen arabera»<sup>16</sup>. Ikuspegi dinamiko horretatik, «kultura ez da ekintza sozialaren aurretikoa, baizik eta jendarte egitura islatzen, indartzen, kuestionatzen eta astintzen duten prozesu askotarikoekin eraikitzen da» (*ibid.*)<sup>17</sup>.

Ondorioz, kulturaren sorkuntza eta erreprodukzioa botere-harremanen baitan gertatzen da: kultur ekoizpena, bada, boterearen eta baliabideen irisgarritasunaren arabera den heinean, genero- eta klase-hierarkiak birproduzitzen ditu (Bullen eta Egidio, 2003). Kulturaren ikuspegi estatiko eta esentzialista desegonkortzea

---

16. Jatorrizko hitzak: «La cultura en sí es dinámica, está en constante negociación y redefinición y cambia constantemente según los rasgos que eligen los actores sociales para construir su propia identidad, las interrelaciones que existen entre grupos y los procesos en el cual se encuentran inmersas» (Bullen eta Egidio, 2003: 33).

17. Jatorrizko hitzak: «La cultura no existe a priori de la acción social sino se construye a través de diferentes procesos que reflejan y reafirman o cuestionan y sacuden la estructura social» (Bullen eta Egidio, 2003: 33).



proposatu zuen Lila Abu-Lughodek (1991)<sup>18</sup>, *bestea* eraikitzeke funtsezko tresna den neurrian. Hala, kultura eraikuntza/interpretazioa litzateke, etengabe aldatuz doan (gorputz) praxia bateratzen duen eremu dinamikoa (Esteban, 2012: 45).<sup>19</sup>

Bestalde, tradizioaren irakurketa hegemonikoak desberdinkerien justifikaziorako ere erabili daitezke. Tradizio kontzeptuaren baitan babestuz, tradizioaren iruditegi oso bat sortu da eta horrek, hautu jakin batzuen ondorioak legitimatzea ekarri du (Farapi, 2009) Tradizioaren alderdi esanguratsuak, «denborarekin metatzen duen balioa» eta «belaunaldiz belaunaldi igarotzeko modua» liriateke: «Denbora-dimentsioaren oinarrian errepikapena era denboran zeharreko jarraitasuna dago, eta garrantzia irabazten doa garai gutxi-asko urrun batetik iraun izanagatik» Transmisioaren alderdiak, gainera, arbasoen komunitatearekin ezartzen ditu loturak eta hortaz, baita identitate-loturak ere (*ibid.*: 12).

Tradizioak baina, aldaezinak izan beharrean, asmatu egiten dira, iraganarekiko harremana manipulaturatuta oraineko egoera berriei erantzutearren (Hobsbawn, 1986). Jendarteak bezala tradizioak ere etengabeko bilakaeran egongo dira (Del Valle, 2003 Díez, 1999; Bullen eta Egido, 2003; Bullen, 2005; Farapi 2009; Esteban, 2012). Beste kontu bat litzateke erritueta zein aldaera onartzen diren eta zein ez diren onartzen. Aldaketa horiek eragina baitute botere-harremanetan, sozializazio-bideetan, ohore, ospe eta pribilegioetan. Generoari dagozkion aldaketek, beraz, modu zuzenean genero-ezberdintasunetan eragingo dute.

Liburu honen bigarren atalak tradiziozko errituen kariatara sortutako hiru genero-gatazken nondik norakoak jasotzen ditu, hirurak ere abiapuntu jakin batetik helduak. Helburua ez da kasuon bitartez argazki amaitu bat egitea, bistakoa baita gure geografietan barna aurki dezakegun aniztasuna<sup>20</sup>. Hasteko, Beatriz Moralek, Margaret Bullenek eta Xabier Kerexetak beste ikertzaile batzuekin batera egindako Donostiako Danborradan emakumeek duten partaidetzari buruzko azterlanaren nondik norakoak eta konklusio nagusiak laburbiltzen dituzte: errituen eta donostiartasunaren arteko harremana, eboluzio sozialak jaian duen isla, herritarren pertzepzioan egungo proposamenak onesteko edo gaitzesteko historiak duen

---

18. Abu-Lughodek hiru proposamen egiten ditu *Contra la cultura* obran (1991): (1) Diskurtso zein praktiketan arreta paratzea teoria eta praktikaren arteko banaketa hautsiz, kontraesanak, aitortzak eta estrategiak aztertzea garamatzan eraikuntza dinamiko gisa; (2) Ikertzailea den subjektuaren eta ikertzen duenaren testuinguru historiko eta sozialak egitea; (3) Partikularraren etnografiak burutzea, *kultura* kontzeptua desegonkortuz eta «bestelakotze» prozesu hori subertituz (Abu-Lughod, 1991: 473).

19. Analisi-eredu korporalak euskal kultura beste zirrikitu batetik ulertzeko begirada eskaintzen digu. Ikus, esaterako, Alvarez eta Lasartek (2012) zein Esteban eta Hernándezzek (2016) koordinatutako bildumak.

20. Ikus, adibidez Farapik (2009) Gipuzkoako festei buruz egindako ikerketa. Ikus, baita ere *Herri zahar andre berri* egitasmoa eta elkragunea <[https://www.youtube.com/watch?v=0vW-t1Ch\\_tQ](https://www.youtube.com/watch?v=0vW-t1Ch_tQ)> (Kontsulta-data: 2016-11-15)

zilegitasuna, urketariaren<sup>21</sup> rolak dituen aukerak eta mugak, lortutako emaitzak eta eman beharreko pausoak, besteak beste.

Jarraian, Kerexetak «Ondare materiagabeak generorik al du?» galdera abiapuntu, Irun eta Hondarribiko alardeak aztertzen ditu. Euskal Herrian, tokian tokiko autoafirmazio-erritu folklorikoak, hain zuzen nortasun kolektiboaren isla eta berreslea diren heinean, ondare materiagabe omen dira. Ondarearen defentsaren argudioa erabil ote liteke, bada, halako errituetan emakumeen partaidetza, tradizionalki ukatua edo murriztua, galarazten edo oztopatzen jarraitzeko?

Bigarren atala amaitzeko, Baztango Plazara Dantzara herri-ekimeneko Aitziber Zapiainek, Edurne Arrietak, Elurre Iriartek, Garbiñe Elizegik eta Maitane Maritorenak mutil-dantzen analisia egin dute azken urteetan herriz herri izan duen garapena aintzat hartuz. Finean, generoa, klasea eta hizkuntza barnebiltzen dituen gatazka baten gertakarien berri ematen digute, baita horren aurrean egin den ahalduntze eta autodefentsa feministaren berri ere.

### **ZERBAIT GERTATZEN ARI DA. SORKUNTZAREN PLAZA FEMINISTAK**

Festa-egitarauetan emakumeen bazterkeriaren aurkako egitasmo anitz egin dira feminismoen baitan<sup>22</sup>, eta liburuaren zenbait ataletan bazterkeria horren kezkek zein alternatibak mintzabide ditugu. Hirugarren atal nagusian, plaza feministak lortu aldera zenbait antolatzaile eta sortzaileen gogoetak bildu dira: absentziak kuestionatzeaz gain, sorkuntza-prozesuez eta eszenak feministago bilakatzeko koordenatuez mintzo dira.

«Eta hala ere, plazan gaude» izenburu iradokitzailez ematen dio hasiera atal honi Onintza Enbeitaren artikulua. Plaza askotarikoak, plazetan gertatutakoak eta bizi izandakoak, aldaerak, kodeak eta giroak ditu aztergai, begirada fin eta bizkorrean. *Hau ez da kasualitatea* eta *Testurak* egitasmoak ere azaltzen ditu Enbeitak.

Jarraian, Mefsst! Musika Errebolta Feminista jaialdia dute hizpide bertako hiru kidek: Miren Aranguren, Maider Fernandezek eta Leire Lopez Ziluagak. Jaialdi hori Euskal Herriko punk eta hardcore eszenan emakumeen absentziak ohartuta sortu zen, eta jaialdiaren ibilbidea zein bidean zehar egindako hausnarketak jaso dituzte.

Hirugarrenik, Iraitz Lizarraga ikertzaile eta akrobatak generoa eta gorputzak ekoizteko zirkoak dituen moduetan kokatu du bere analisia, zirko klasikoan, modernoan eta garaikidean sortutako genero-ereduak aztertuz: gizon zein emakumeei esleitutako funtzioak ditu gogoetagai, baina, baita gorputz horiek eta euren praktikek genero-arauetan sortu dituzten arrakalak ere. Zirkoa parekideago bilakatzeko zenbait erronka proposatzen ditu Lizarragak, jaietako kultur eskaintza parekideagoa aldarri.

21. Danborradaren iruditegian iturrira ur bila joaten ziren emakumeak errepresentatzen dituen pertsonaia da. Bere sorreran emakumeen parte-hartzea ahalbidetu bazuen ere, egun kasu batzuetan mugatzailea ere izan daitekeela aztertu da. Gehiago jakiteko ikus Moral (2014).

22. Ikus, adibidez, EHBFre emakumeok plazara proiektua: <<http://emakumeokplazara.org/>> (Kontsulta-data: 2016-11-11).

Atal hau amaitzeko, Miren Gaztañaga sortzaileak berak eginiko *Stereo* piezaren gainean idatzi du. Sorkuntza-prozesuaren nondik norakoak azaltzen ditu bertan, bidaia-mapa bailitzan: identitatea disekzionatuz, norberaren mugak eta deserosotasunak kudeatuz eta prozesu horretan gorputza munduan egoteko modu desberdinetan esperimentatuz.

### ***JENDARTE-ALDAKETAK, FESTA-EREDUAK ETA PARTE-HARTZEA***

Festak, jendarte jakin baten kultur adierazpen bat diren heinean, jendarte horren garaian garaiko ezaugarriak izango ditu. Jendarteko egiturak lausotzearekin batera, beraz, kultura eta festa bera ere lausotuko zaizkigu:

Hiria aurrera doa, eta bere festa-eskemak baino erritmo biziagoan doa eraldatzen. Hiri garaikidearen jomuga etengabeko ikuskizun bilakatzea da. Eskaintzak biderkatzen dira, aisialdi-denbora zein lan-denbora nahasten dira, asteburu bakoitza aurrekoaren antzekoa da eta festek, festa guztiek, festa berbera izatera jotzen dute.

Txomin Barullo (1993) *apud* Gamarra (2012: 273)<sup>23</sup>

Etengabe aldatzen den ingurune baten parte gara: nekazari-komunitateen galera, sekularizazio-prozesuak, jendarte industrialen hedapena, zerbitzuetan ardatzen diren jendarteak, turismoaren hedapena, erakundeen esku-hartzea, ikuskizunen kultura, kontsumo-gizartea... Lehen azpimarratu bezala, aldaketa sozialak gertatu ahala jaiak aztertzeo begiradak ere are konplexuagoak zaizkigu. Egutegiak, kronologiak eta denborak aldatu dira (Velasco, 2012); ospatzen dena eta ospakizunen logika soziala ere aldatu da (Ariño eta García, 2006, 2012) baita ikergaiak ere. Esaterako, festa-erritu berriak aztertzen dira festaren antropologian: ezkonaurreko agurrak, kirol-lehiaketak (gurean futbol-partidek sortzen dutena ikustea besterik ez dago), festibalak, migrazioen ondorioz aniztasunaren ingurumarian sortzen diren festa berriak eta beste. Musika-kontzertuek pisu handia hartu dute egungo festen ulerkeran. Aldarrikapen-egunek ere festa-izaera hartu dute, hala nola martxoaren 8ak edota ekainaren 28ak (Andrieu eta Vazquez, 1988). Egun horietan festa feministak antolatzen dira han eta hemen, bai mugimendu feministak, instituzioek eta bestek<sup>24</sup>.

Sekularizatutako jendarteetan, festa forma tradizionalak esanahi berriak hartzen dituzte, esaterako, identitarioak zein kultur ondasunen kontsumoari lotuak. Turismoa bera ere kultur ondarearen garapenerako funtsezkoa da, aldaketa-eragile indartsu (Ariño eta García, 2012b: 89). Autore horien ustez konplexuagoa egiten du

---

23. Jatorrizko hitzak: «La ciudad avanza y se transforma a mayor ritmo que sus esquemas festivos. La aspiración de la ciudad contemporánea es convertirse en espectáculo permanente. Las ofertas se multiplican, el tiempo de ocio y de trabajo tienden a confundirse, cada fin de semana es similar al anterior y las fiestas, todas las fiestas, tienden a ser la misma fiesta». Txomin Barulloren konpartsaren artikulua MOSKOTARRAKen: *Gora Aste Nagusia (15. urteurrena)*, Bilboko Udala, 1993, *apud* Gamarra (2012: 273).

24. Honi buruz, ikus Andrieu eta Vazquez (1988). Eta bilduma honetan Minerrek eta Etxezarretak ekainaren 28aren gaineko gogoeta interesgarria egiten dute.

subjektu ospatzailea, baita denboren banaketa ere: aisialdi-denboran, festa bilakatzen delako industrializazioaren osteko kontsumo-gizartearen ezaugarri garrantzitsu. Festa-turismoa pentsaezina litzateke jendartearen gertatzen diren espektakularizazio-prozesuak aintzat hartu gabe (Ariño eta García, 2012b)<sup>25</sup>.

Logika kapitalistaren barruan, eta *kulturaren* merkantilizazioaren ondorioz, festa praktika ekonomiko garrantzitsua bilakatu da<sup>26</sup>. Hala, festen ekoizpen-bideak ere ikergai dira. Baliabide publikoen faltak, maiz, bide komunitarioetan eta autogestioan sakontzera, sormena erabiltzera eta ospakizunen prestakuntza eta garapenean inplikatzera daramatza herritarrak. Autoantolakuntza-ahalmena indargune sozial garrantzitsua da. Aldiz, festek sortzen dituzten mugimendu emozional eta kohesionatzaileez jabeturik, festa herrikoiaren bereganatzea egiten dute maiz udal-gobernuek edota bestelako erakunde komertzialek. Batzuetan euren balio eta helburuen autolegitimizazioa ere erabiliko dituzte.

Festak, ekintza kolektiborako dispositibo gisa, aldaketen ondorioz identitateak gertatzeko eta bestelakotasuna eraikitzeke baldintza berriak baldin baditu, horiek ikertzea erronka garrantzitsua izango da, bereziki, desberdintasun sozialak eta gatazkak legitimizatzeko ideologiak agerian uzteko.

Herritartasuna eta parte-hartzea, balio eta aldarrikapen garrantzitsuak izan dira erakundeetatik at antolatzen diren festa-eremuetan. Jaiena larre zabala den arren, Euskal Herriko testuinguruan badago herri-festak antolatzeko usadioa. Leku eta garai desberdinetan erabilitako formulak askotarikoak izan badira ere, ohikoak ditugu festak antolatzen dituzten bizilagunen elkarteak, jai-batzordeak, koordinakundeak, peñak, koadrilak, konpartsak, kofradiak eta beste. Erakundeekin dagoen harremana ere aldakorra izan ohi da: herri batzuetan jai-batzordean herritarrak, kolektiboak eta udaleko teknikariak nahasten dira, eta beste herri batzuetan batzorde guztiz banatuak izaten dira. Oro har, ezagunagoak zaizkigu hirietako batzorde eta antolaketa-moldeen izenak, baina, Euskal Herrietako territorio zabalean badira herri eta auzo ugaritan festa-subjektu antolatzaile andana. Orobat, festa alternatiboek potentzial politiko nabarmena dute euren balioen arabera festak modelatzen jarduten saiatzeko<sup>27</sup>,

---

25. Era berean, turismoaren eraginak festetan sortzen dituen kalteak presente izan arren (pentsa adibidez, Iruñeko sanferminetan edota Baionako bestetan), Ariño eta Garciak (2012b) aipatzen dute ezaugarri positiborik: estigmatizatuak izan diren herrietan, kasu, euren balioaren aitortza bat ere izan daiteke.

26. Horren adibide ditugu azken urteetan aski areagotu edo hazi diren musika-festibalak. Horietako batzuk, enpresa eta marka pribatuek finantzatzen dituzte; bankuek, edari- edota jantzi-markek kasu. Kritiko agertu izan dira horrekin festa-antolatzaile diren kolektibo anitz. Kontrarako adibidean, 22 urte daramatzen Euskal Herria Zuzenean festibala (EHZ) dugu, egun Lekornen ospatzen dena. Balio desberdinak dituzte euren jardunaren ardatz, antikapitalismoa edota jasangarritasuna kasu.

27. Ikus esaterako *Argian* (2014-06-29) agertutako «Jai herrikoiak eraldaketa sozialerako tresna» erreportajea. Bertan zenbait adibide ezagun agertzen dira: Gora Iruñea!, EHZ festibala, Bilboko Konpartsak, Donostiako Piratak, Gasteizko Blusak eta Neskak eta beste. Horrez gain balio eta aldarrikapen desberdinak dituzten beste zenbait festa interesgarri jasotzen dira erreportajearen: Mikel Garcia Idiakez (2014).

Markel Ormazabalaren hitzetan, «Herrigintzaren logika, gaur inoiz baino gehiago, kontrajarrita dago dugun gizarte ereduaren nagusi den logikarekin. Horrexegatik, auzo eta herriak bizirik mantentzeaz gain, indarrean dauden joera eta balioak eraldatzeko baliatu behar dira herri mugimendutik jaiotako ekimenak» (in Garcia Idiakez, 2014). Hala, festek, Ikuspegia kritikoa izateko, «sortzaileak, antikapitalistak, ez-patriarkalak, autokritikoak, ekologistak, bestelako kontsumo ereduaren aldekoak, kultur anitzak» behar lukete.

Festa-potentzial politiko horren baitan aldarri garrantzitsua izan da herrikoitasuna: herritarren parte-hartzea, *jaiak herritik eta herriarentzako* moduko lehen sintonian. Bada, zein herritarri egiten die erreferentzia nahi horrek? Herrikoitasun horren inklusibotasuna bada genero-ikuspegitik aztertu den zerbait, eta aztertzen jarraitu beharko dena. Era berean, azken urteetan eginahal berezia egin da aurrerapausoak egiteko: erasoaren aurkako protokoloak, diskurtsoetan eta egitarauetan aldaketak eta beste. Kolektibo feministek egindako analisi, lanketa, ekintza, dekalogo eta elkarlanak funtsezkoak izan dira bide horretan<sup>28</sup>. Horiez gain, bada, aipatu behar dira, jai-batzordeetan horretarako sortutako lantalde, lantegi edota gune espezifikoak; zenbait udaletako parte-hartze, kultura edota berdintasun sailetatik proposatuak; parte-hartze eta ikerketa enpresek eta elkarteek aurrera eramandako prozesuak, eta beste. Halaber, pertsona berberak eremu desberdinetan egon ohi dira lanean maiz. Era berean, militantzia-ereduen gaineko gogoetak<sup>29</sup> ere esanguratsuak izaten ari dira bide honetan.

Jendarte garaikidean kapitalismoak, arrazismoak, lesbo/homofobiak eta bestelako zapalkuntzek moldatzen dute genero-izaera. Interseksionalitatearen<sup>30</sup> ikuspegitik, elkar gurutzatzen duten estratifikazio- eta zapalkuntza-sistemak dira hauexek, testuinguru bakoitzean modu desberdinetan garatzen direnak. Beraz, festa-testuinguru horietan gorputzek dituzten bizipen horiek behatzeko ezinbesteko zaizkigu genero-kaleidoskopioak<sup>31</sup>. Horrenbestez, generoa analisi-kategoria legez ulertu (Scott, 1986; Martín Casares, 2006) eta beste aldagai batzuekin artikulatzen den moduei erreparatu nahi badiegu (adina, jatorria, sexualitatea, klase soziala, aniztasun funtzionala...), herrikoitasun horren politiken klabeetan sakontzen joatea izango da funtsezko erronka bat.

---

28. Emagin eta EHBfren artikulua, adibidez, elkarteak alor honetan egindako lana jasotzen du: irakurketak eta analisiak, urteroko kanpainak, eragileekiko elkarlana, Emaginetik bideratzen diren formazio-prozesuak eta aholkularitzak, herrietako ekimenak eta beste. 2014an aipatutako *Festa dezagun gaurdanik geroa* dokumentala egin zuen.

29. Ikus, esaterako, Álvarez (2012) eta Joxemi Zumalabe Fundazioa (2014).

30. *Interseksionalitate* kontzeptuak azaltzen du nola egiturazko desberdinkerien iturri askotarikoek (hala nola klase soziala, generoa, sexualitatea, aniztasun funtzionala, etnia, nazionalitatea, adina eta abar) elkarrekiko harremanak mantentzen dituzten. Afera analitikoak litzateke testuinguru bakoitzean determinanteak diren identitateak edota adierazpenak ikertzea: bazterkeria askotarikoak harremanean eraikitzen dira eta horiek gorputzetan artikulatzen diren moduak analizatzen datza (Platero, 2012).

31. Genero-kaleidoskopioen kontzeptuan sakontzeko, ikus Spade eta Valentine, 2004.

Laugarren atalean, parte-hartze, antolakuntza eta festa-ereduei erreparatzeko bidean hiru prozesu eta gogoeta jaso dira. Hasteko antropologiaren arloan lanean ari den Farapi koop. Elkarteko kide diren Maria Ajuriak eta Araitz Rodríguezek jaietan ikuspegi feminista txertatzeko egindako partaidetza-prozesuen inguruko hausnarketak eta praktikak azaltzen dituzte. Prozesu horietan, udal-erakundeen (berdintasun- eta kultura-sailak) eta herri-eragileen (jai-batzordeak, mugimendu feminista, herritarrek) arteko elkarlana bilatzen da, eta kontzientziazio eta eraldaketa feminista uztartzen dira, partaidetza-prozesuen bitartez desberdinkeriak zein eraldaketarako estrategiak identifikatuz.

Bestetik, Pili Álvarez eta Marta Luxán Joxemi Zumalabe Fundazioko kideek gogoetarako hamaika galdera (more) jorratu dituzte. Zeri deritzogu jai? Eta jai herrikoia? Jaiak nola, nortzuk eta norentzat antolatzen dira? Hala, festa-eredua, festa-ekimen motak, kontsumoa, edota aldaketa sozialen eragina bezalako gaiak helden diete. Festak ekimen kolektibo, erritual eta talde-identitatea zein jendartea birsortzen dituen heinean, eraldaketarako gune berezia da egileen ustez.

Atal honekin amaitzeko, Isabel de Blasek eta Mireia Delgadok Durangoko 2016ko Ibilaldiko Eragile Moreen esperientziaren kronika eta bizipenen irakurketa egin dute. *Dagigun* lelopean ospatu zen Bizkaiko ikastolen jaiak; hezkuntza-komunitatea herri-mugimenduztat aldarrikatuz. Berau parekideago egin eta erasoak prebenitzeko abiatu zuten Eragile Moreak prozesua. Egileek dinamika horren nondik norakoak eta horrek sortutako aztarnen zein irekitako bideen zenbait gogoeta bildu dituzte.

Zailtasunak zailtasun, prozesuak martxan daude eta gatazkak lehen baino ageriago daude. Herritarrok antolatzen dituzten festak euren potentzialtasun politikoa aurrera doaz, festarik festa, denontzat gozagarriak eta justuak izan arte.

### ***GENERO-DESBERDINKERIAK ETA FESTETAKO INDARKERIAK***

Udara usaia, oporrak, gustuko taldea eszena gainean, aspaldiko lagunarekin enkontua, kaleko bizitza eta alaitasuna, txosna-muntaketa eta mojitoa, zirrara, txaranga, gorputzak mugimenduan eta sentsazioak haragietan. Baita etxera tristuraz edo haserreaz itzuli garenak ere, *gau karatsegiak* akaso<sup>32</sup>. Harremanen kudeaketa apartekorako eta gozamenerako esparru izan daitezke festak, alegia. Ikuspegi xaloe. gia litzateke honakoa, ordea, gertakari sozial honen argi-ilunak kontuan hartuko ez bagenu. Testuinguru berezi zein bizia da eta sortzen diren indarkeriak ere askotarikoak dira. Egituraz sortzen diren eta maila sinbolikoa mantentzen diren desberdinkerien isla dira festetan gertatzen diren bazterkeriak, jazarpenak eta erasoak.

---

32. Itxaro Borda (1978).

Zaila da jakitea ea azken urteetan erasoak areagotu diren ala ez<sup>33</sup>; bistakoa da, bederen, erasoekiko kontzientzia soziala areagotu egin dela. *Baboseo*<sup>34</sup> delakotik hasita bortxaketak ere gertatzen dira festetan. Erasoak pairatzen dituztenak ez ezik, bereziki emakume izendatutako gorputz orok du horren mehatxua, eta, hortaz, beldurrean sozializatzeko dibertsio-aukerak ere aski mugatzen ditu. Are gehiago, erasoak eta desberdinkeriak maiz ikusgarri egiten badira ere, egiten direnean biktimizazio-prozesua indartzen duten moldeetatik egiten da, fokua emakumeen erantzuteko gaitasunetan jarri gabe. Hori argi ikus dezakegu zenbait hedabidetan. Ondorioz, zoritxarrez eta halabeharrez, festak eta generoa hizpide direnean (lantegi, hitzaldi edo bestelako foroetan) maiz gertatzen da indarkeriak zentralizatzen dituela eztabaida garrantzitsuenak, egoera bera arras lazgarria delako.

Ikuspegi feministatik, bada, horren aurka sortzen diren ekimen askotarikoetan begirada paratzea hautu garrantzitsua eta emankorra izan da. Lan mardula egin du mugimenduak hori azaleratzen. Oro har, indarkeriaz ezagutza ugaria ekoinzi da feminismoaren baitan, baita festa-indarkeriez ere<sup>35</sup>. Funtsezkoa da indarkeria bestela ulertzeko bidean indarkeria-prozesu askotarikoen analisiak egitea; testuinguru zehatzetan eta ertz askotarikoei helduko dieten analisi, ikerketa eta gogoetak. Ezagutza desberdinek ñabardurak ekarriko dituzte, festa-politika feministetan ere lagungarri izango direnak. Aniztasun horren adibide ditugu, esaterako, tradizioaren izenean eratzen diren ideologia baztertzailak, edota orotariko eraso sexistak eta jazarpenak. Halaber, gertatzen da tradizioz edo ohituraz emakumeenak kontsideratu diren jardueren gutxiestea, kultur eszenan gertatzen den bazterkeria, aisialdiaren ikuskera androzentrikoa<sup>36</sup>, festan parte-hartzeko zailtasunak, festen antolakuntzan gertatzen direnak edota jaien antolaketaerako eragile eta subjektuen hierarkizazioa, eta beste. Kasu batzuetan argi ikusten da indarkeriaren intentzionalitate bortitza; beste kasu batzuetan, aldiz, konplexua eta lausoa da bazterkeria hori edota botere-harremanak identifikatzea.

Liburuaren atal batzuetan zehar-lerro gisa agertuko zaigu indarkeriaren gaia, ikusiko ditugun adibideetan kontestualizazioa eta konplexutasuna azpimarratuz.

---

33. Konplexua da, zeren erasoak gehiago salatzen dira eta areago, erasoen ulerkeraren arabera aldatzen den zerbait da. Gizarte eta hiri-ereduek zein festen izaerak ere badute eragina indarkeria horietan: esaterako, masifikatu diren festetan aiseago gertatzen dira erasoak. Indarkeriaren harira, ikus *Larrun* aldizkariako erreportajea (Irureta, 2015). Indarkeriaren erakundetzeaz, ikus (Bullen eta Kerexeta, 2013).

34. *Baboseo* deitu ohi zaio norbait astunkeriaz gerturatzen denean, gorputz-espazio pertsonalaren inbasioa sortuz, izan begirada, hitz, gerturatze, edo bestela.

35. Adibide gisa Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxak (EMM) 2016. urtean Donostian antolatutako jardunaldiak aipatu nahi genituzke, *Indarkeria matxista birpentsatzen: feminismitik erantzunak martxan!* lelopean (2016-11-18/19). Bertan festa-esparruko indarkeriez zenbait saio egin ziren.

36. Ikuspegi androzentrikoa diogunean, zaintza-lanak ikusezin egiten dituen denboren antolaketa ari gara. Hau da, lanerako denborak eta aisialdirako denborak banatzen dira, kontuan hartu gabe bizitzaren kudeaketak dituen behar guztiak: elikatuak, garbi, deskantsatuak eta ongi egoteko egin beharreko kudeaketak, eta behar horiek kontuan hartuz sortzen den interdependentsia-ikuspegia.

Horiek tentuz pentsatzeko klabeak ere badira. Hala, indarkeriaren ulerkera zabal bat ahalbidetzen dute indarkeriaren makineriaren<sup>37</sup> zenbait aspektu xehatuz. Era berean, ez dira indarkeria-azaleratze oro zaku berean sartu nahi: mugimendu feministak ezinbesteko lana egi(te)n du ikusezina, sotilena den hori, eta finean, bestelako azaleratzeen erro diren indarkeriak ikusgarri egiten eta salatzen. Modu berean, garrantzitsua da indarkeriaren intentsitateak definitzen sakontzea edota indarkeria desberdinak nola erlazionatzen diren behatzea; xehatzeak gako konkretuetan pentsatzea ahalbidetuko duelako, eta, era berean, horrek politiketan eragingo duelako.

Liburuaren zenbait testuk azken urteetan indarkeria-prozesuen eta horien erantzun zein aurrelanketetan gertatutako aldaketak aztertu dituzte. Festa-politika feministen kariatara sumatutako bi kezka aipatuko ditugu adibide gisa: batetik, indarkeriaren erantzunen gainean mugimendu feministak pairatzen duen kriminalizazioa; bestetik, mugimendu sozial zein herri-mugimenduen barnean kideen artean gertatzen diren eraso sexisten kudeaketa. Biak ere, liburuia ixten duen solasaldi kolektiboan nabarmendu diren kezketan agertzen dira.

Lehenaren kasuan, argia da berdintasunaren diskurtso politiko zuzenen erabilera hedatuarekin lotua dagoela. Eredu batzuetan, ustez aurrerakoiagoak, edota, besterik gabe berdinzaleagoak diren eremuetan, zailagoa da eduki feministei zuzeneko kritika egitea. Ondorioz, erresistentzia horiek sarri moduei egiten zaizkie: ez, ordea, beti modu eraikitzailean. Intentzior edo ez, horren atzean badago mugimendu eta praxi politiko feministaren gutxiestea, are aldarrikatu nahi den edukia indargabetzea ere. Edukietan eta kezka diren aferetan (hots, indarkeriaren deuseztapenean) aurreratzea saihesten du. Erpin askotako gaia da. Ez dugu hemen sakonduko aurrerago hainbat autorek egingo baitute, baina gai horrekin lotutako ideia bat aipatu nahi dugu: feministen artean praxien inguruko iritzi desberdinak daude; alabaina, premisa garrantzitsua da, nor bere usteen arabera jardutea, baina, era berean, ekinbide desberdinak errespetatzea. Eta hala, elkarrekin lasai eztabaidatzea beti izango da aberasgarri (eta zinez beharrezko), molde eraikitzaileetan eta errespetuzkoetan.

Kideen artean gertatutako eraso sexisten kudeaketa ere bada sumatu den kezka bat, eta horretan hausnartzea eta aurreratzea premia moduan sentitzen da. Azken urteetan bereziki erreparatu zaie eta agerian gelditzen ari dira hori lantzeko zailtasunak eta erronkak. Bada hausnartzeko, esperimintatzeko, ikertzeko eta gakoetan sakontzeko beste gai bat.<sup>38</sup> Halaber, uste dugu halako gaien kudeaketak indarkeriaren kudeaketa orokorra sakonago ulertzen lagun dezakeela, eta alderantziz. Festetan komunitatean latente diren gatazkak azaleratzen dira, berdintasunaren gaineko ikuspuntu desberdinak, adibidez.

37. Ikus *Beldurrak gurekin Jai! Ekin Autodefentsa feministari* (2013) EHBFn liburuxka.

38. Honen harira, zenbait mugimendutan horretarako hausnarketak egiten ari dira: EHBFn edota Joxemi Zumalabe Fundazioan, esaterako. Hori jorratzen duten zenbait fanzine ere badaude. Horrez gain, ikus Martinez Portugal (2015) eta Downes, Hanson eta Hudson (2016).



Kezkez gain, garrantzitsua izan da indarkeriaren aurkako zenbait proposamen eta prozesu ezagutzea; azken urteetan areago hedatu den autodefentsa feministaren planteamendua kasu. Mugimendu feministak egindako lanaren ondorioz ere zenbait eragile sozialek eta jai herrikoei lotutako mugimenduk bere egin duten ardura izan da indarkeriari aurre hartzea. Prozesu zailak dira, baina zerbait mugitzen ari da, eta zerbait aldatzen ari da.

Indarkeriaren aurrean, beraz, analisiak, ezagutzaren ekoizpena, praxiaren hausnarketak, ekimenen hedapenak... estrategia garrantzitsuak dira festa-politikan. Era berean, ez dadila hori izan festak eta generoaz solastean etengabe erdigunean kokatuko den gai bakarra, batez ere, indarkeria horrekin amaitzeko, sakoneko erraietara eta egiturara jotzeaz gain, bestelako festa feministagoak, justuagoak eta askeagoak irudikatzea ezinbestekoa delako. Irudikatzea bezainbeste, bizitzea, eta hezurramitzea; plazera sentsazio eta zentzumenen bitartez gorpuzten baitugu (Hierro, 2003). Bide horretan, plazeraren kudeaketa kolektiboetan hausnartzea erronka interesgarritzat agertzen zaigu.

### ***PLAZERA BERA DISIDENTZIA ETA AHALDUNTZE BIDE***

«Una mirada alegre y subversiva es la primera que se me ocurre cuando pienso en las fiestas. Una actitud descarada, de disfrute total, desinhibida, de diversión. Ésta es la conquista más importante del espacio festivo para nosotros (...)».

Begoña Zabala González

Indarkeriarik gabeko espazio seguruak eta inklusiboak izango diren festak lortze bidean, funtsezkoa da plazer kolektiboen politikez hausnartzea. Horretarako, plazeraren irakurketa politiko eta agentzia askotarikoak ikusaraztea izango da festa-alorraren erronka argietariko bat. Feminismoak modu subertsiboan heldu izan dio horri<sup>39</sup> eta horretan sakondu dute zenbait antropologok ere (Lagarde, 2000; Hierro, 2003; Jolly, Cornwall eta Hawkins 2013; Ahmed, 2015; Muelas, 2015). Nolabait esatearren, eta bakoitzak bere kontzeptu zein ñabardurekin egiten badu ere, *emakumeen* plazera eta ahalduntzea funtsezko eztabaidagai politikoak dira. Rosi Braidottiren hitzetan mugimendu feministak jardun nabarmena izan du emakumeen ongizatea, autokonfiantza eta ahalduntzea agenda sozial eta politikoan kokatzen: zoriontasuna ezinbesteko giza eskubide bat den heinean, feministontzat auzi ezin politikoagoa litzateke (Braidotti, 2006 *apud* Muelas 2015).

Sexu-plazerari buruzko zenbait irakurketa politiko hedatzeko moduak dira festen politika feministetara, eta, orobat, plazeraren gogoeta orokorrera. Carole Vancek (1989) emakumeen bizitzan plazera eta arriskuaren artean dagoen tentsio boteretsuaz hausnartu zuen; besteak beste, sexu-arriskuen eta sexu-plazeraren arteko

39. Ikus, adibidez, Begoña Zabala (2008), Silvia L. Gil (2011) eta Epelde, Aranguren eta Retolaza (2015).

tentsioaz<sup>40</sup>. Sexu-arriskuen kritika ahuldu gabe, plazeraz hitz egitea ezinbestekotzat jo zuen justuki testuinguru seguruagoak irudikatu ahal izateko. Izan ere, indarkeriak tabua bilaka dezake plazera bera. Hortaz, plazeraren analisisa zabaldu eta horrek emakumeei sortzen dizkien bizi-energia eta boterea mahai gainean jarri zituen. Errealitatea bezain konplexua izan behar du feminismoaren erantzunak (Vance, 1989). Plazerean soilik zentratzea emakumeen sexualitatea kokatzen duen generosistemaren arreta galtzea litzateke; era berean, soilik zapalkuntzetan fokua jartzea ere arriskutsua litzateke, estrategiak ikusezin egiten dituelako, eta bilatu gabe, emakumeen ikara eta babesgabetasuna areagotu ditzakeelako (*ibid.*).

Era berean, plazera, ongizatea eta zorientasuna arras agertzen dira diskurtso kapitalistetan, kontsumoari eta indibidualismoari lotuak, eta, beraz, tentuz ibili nahi genuke kontzeptuon *mendebaldar* erabilerarekin. Sarah Ahmeden arabera, kapitalismo globalaren mandatuak da plazer gehiago izatea, kontsumoaren bitartez (eta objektu jakinek determinatzen dituzten ideal sozial eta kultural menperatzaileekin) lortuko duguna; baina plazer hori ihesbiderako balbula gisa agertzen da, produktiboak izaten jarraitzeko pizgarri gisa. Halaber, plazeraren ekonomia kapitalista, heterosexualitatera lotua dago (2015: 250)<sup>41</sup>. Horrenbestez, zorientasunaz eta ongizateaz sistema kapitalistan egin den erabilera horri beste esanahi bat eman dakioken arren, zaila izango da zorientsu izatea ez badira zorientasunaren gaineko kultur arauak eta mandatuak zalantzan jartzen (Muelas, 2015).

Plazera, ordea, eraldaketa-esparru ere bada. Marcela Lagardek (2000) argi uzten du ahalduz eta autoestimua feministaren gogoetetan ere emakumeen bizibaldintzak eta ongizate hori sozialki lortuko den zerbait direla, kolektiboki. Muelasen ustez, eraldaketa sozialerako eta eraldaketa subjektibo eta kolektiborako motorra da plazera. Gorpuzten den sormen-prozesua da, errepresentazioek, diskurtso sozial, kultural eta historikoei iragazia eta bereizkeria sozialak eta genero-bereizkeriak aintzat hartuko dituen; jendartea, ekonomia eta politika behatzeko modu alternatibo gisa (Muelas, 2015). Hala, liburu honen lehen atalerako autoreak idatzitako testuan ere, praxi feministaren erdigunean kokarazten du plazera: hurbilketa egiten du, perspektiba antropologiko eta feminista batetik emakumeek beren plazer-prozesuak nola ulertzen eta esperimendatzen dituzten, haien inguruan nolako elkarriketak eraikitzen dituzten eta haietan barna nola dabilten aztertzen baitu.

Horrenbestez, plazera bada festak behatzeko modu eta bide bat, subertsiboa eta eraldaketa-bide izango dena. Eta beraz, hori kudeatzeko modu kolektibo

40. Abiapuntutzat izan zuen sexualitatea dela egitura ekonomiko, sozial eta politikoen puntu askotan artikulatzen den eraikuntza soziala. Hala, batetik errepresio- eta arrisku-eremu gisa, eta, bestetik, esplorazio-, plazer- eta ekintza-espazio gisa ulertzeko feministen moduak aztertu zituen, bien uztartzea inolaz ere modu kontrajarrian planteatu gabe (Vance, 1989).

41. Testuinguru kapitalista eta geopolitiko jakinean, festaren irakurketa politikoa egiten du Ideadestroyingmuros kolektiboak, produktibitatea, kontsumoa, heteroaraua, eta beste zenbait gai problematizatuz, ikus: <<http://www.ideadestroyingmuros.info/texts/i-shot-peacepis/>> (Kontsulta-data: 2016-11-15)

erreparatzea dagokigulakoan gaude. Askotarikoak dira jai-giroan sortzen diren plazerak. Maiz dibertsioaren iruditegian parte diren zenbait egoera, elementu eta baldintza nahasten dira bertan: udarak berariaz sortzen dituen sentsazioak, opor-giroak edota sorterrira itzultzeak sor dezakeen zirrara; musika zein dantzaren plazera; laguntasuna ospatzearen plazera<sup>42</sup>, aspaldiko lagunak aurkitzearena, lanean (zein) festan sortzen diren konplizitate eta aliantzak; gustuko dituzun pertsonak aurkitzearen gozamina, ligatzearena; festen antolakuntzan parte hartzean balio propioen araberrako erabakiak hartzearen plazera, edota talde-dinamikak berak sor dezakeena; barrea eta irribarreak, anabasa, jan-edanak, gaua, eguna... Eta noski, batentzat plazera dena ez da izango bestearentzat, edota egun batean zerbaitek plazera sortu bezala agian ez beste batean, dinamikoa den heinean. Argi-ilunak presente ditugu, gertutasuna eta intimitatea beste senti daitekeelako, esaterako, bazterkeria. Kontua da, festak une *intentsuak* diren heinean plazer mota desberdinen aukera ere are intentsuagoa izan daitekeela.

Festarako plazer-politikak funtsezkoak dira emakume eta gorputz disidenteen ahalduntze eta askatasunerako. Bi adibideei bakarrik erreparatuko diegu, liburuaren ataletan beste zenbait plazer-politikatan sakontzen delako. Bata, adiskidetasunaren plazera, eta, oro har, afektibitate eta harremanek sortzen dutena; laguntasuna, konplizitateak eta aliantzak feminismoarentzat iparrorratz garrantzitsu izan dira. Bestea, barrea bera, gorputz-organo subertsiboa den heinean (Francis Mor, 2013). Leire Iburguren (2010) antropologoak azaldu duenez, umorea tresna sotila izan da emakumeak (eta zapal dutako taldeak, oro har) normatibotasunean mantentzeko, baina era berean, jendarte-eredua kritikatzeko eta aldatzeko bitarteko ere bada; hortaz, umorea emakumeentzat erabat subertsiboa izan daiteke<sup>43</sup>.

Plazeraren kudeaketak, egitura patriarkal, kapitalista eta xenofoboari tentuz begiratzeaz gain, esan nahi du jai-ereduan pentsatzea beharrezkoa dela. Festak posible egiteko dauden lan ororen aitortza funtsezkoa da (festaren prestakuntzaz gain bizitzaren zaintzak, nola garbiketak edota otorduak kasu); baita lanak birpentsatzea eta lan-banaketei erreparatzea ere. Zer-nolako festak desio ditugu? Zer behar da festa horiek izateko? Nola antolatu denok gozatzeko eta espazio segurua eraikitzeko? Galdera horien erantzunek erronka garrantzitsuak dakartzate, segur aski epe motzean eta epe luzean desberdinak izango direnak.

Galdekizun horiek abiabide, eta disidentzia zein agentzia feminista helduleku, azken atalean euren ibilbide eta gogoetak partekatu dituzte zenbait talde feministak. Hasteko, EHBF eta EMAGIN Dokumentazio eta Ikerkuntza Zentro Feministako kideek —Idoia Trenorrek, Miren Guillók, Idoia Arraizak eta Oihana Etxebarrietak— Bilgune Feministak hamabost urte hauetan festen esparruan egindako ibilbideaz

42. Adiskidetasunaren antropologiari buruz, ikus Cuco (1995).

43. Halaber, umorea, dibertsio-esparru izateaz gain, izan daiteke baliagarri beldurrei indarra kentzeko, samina xahutzeko, ezagutzak zabaltzeko, desadostasunak kanpora ateratzeko, aldarrikapenak egiteko, sendatzeko, etab. (Iburguren, 2010).

hausnartu dute. Festetako askotariko indarkerien aurrean, autodefentsa feminista, zaintza eta gozamenaren irakurketa politikoa jorratu dituzte, kolektiboan hori nola gorpuztu eta landu duten azalduz, herri-jai feministak helburu.

Elena Garcia MAMIKIko kideak konpartsaren ibilbide oparoa jaso du. Bilboko festetan aldarrri feministak hedatzen dituen emakumeen konpartsa da, 1979an, Bizkaiko Emakumeen Asanbladak sortua, sexismorik gabeko jai-eremu herrikoiak bultzatzeko asmoz. Artikuluan, hamarkada hauetan izandako gertakariak, ekimenak eta gogoetak jaso dira: sorrera, auto-antolakuntza feministan egindako bidea, aldarrri eta egitasmoak, erasoen aurkako borroka, kultur espresio bide feministen lekua, harremanen zaintza eta gogoeta, eta beste.

Medeak taldeko Kattalin Miner eta Ana Txurrukak, jai-esparruen izaera politikoa abiapuntu, zenbait gogoeta jaso dituzte. Festak, borroka-eremu gisa, heteropatriarkatutik zein normaltasun-araueetatik at bestelako ereduak, espazio seguruak eta gune propioak eraikitzeke parada dira. Espazio ludiko feministen beharra aldarrri, eta jai bera iraultzeko asmoz, eredu askatzaileen alde egiten dute, plazeretik.

Azken atalarekin amaitzeko, Euskal Herriko testuinguru desberdinetan festa-eremuan jardunean dauden zenbait kolektibotako feministekin<sup>44</sup> egindako solasaldia jaso du Miren Guilló Arakistainek. Bertan, 2016ko uda ostean gosari baten bueltan hizketagai izandakoak biltzen dira: festen izaera eta jai-eredua, instituzioak, antolakunde mistoetan esperientziak, indarkeriari aurre hartzeko eta erantzuteko estrategiak, artikulazio feministak, plazeraren materialtasuna eta festarako politika feministak, besteak beste. Artikuluaren xedea bereziki aldaketa garaikideak (eta ez horren garaikideak) eta horien aurrean sortzen ari diren estrategiak jasotzea izan da, baita klabe kolektiboan erronkez hausnartzea ere.

### ***JAI-EREDU FEMINISTAK ETA BIDE BERRIAK: PLAZER-POLITIKA KOLEKTIBOAK ERDIGUNE***

Lehen aipatu dudanez, teoria feministen helduleku nabarmena izan da emakumeen agentzia, izan ikerketa-begiradan, analisisetan, baita ekite politikoa ere; egoera latzenetan ere gorputzek duten ekiteko gaitasuna ikusgarri egitea funtsezkoa baita (Juliano, 1992; Mahmood 2004; Esteban, 2004; Ortner, 2006). Festa-politika feministetan ere garrantzitsua da gorputzen agentzia erdigunean paratu eta testuinguruei erreparatzea. Liburuan presente dira erantzuteko gaitasun eta ekimenak; batzuetan gatazka zuzenen bitartez, beste batzuetan festan gozatuz edota kultur sorkuntza askotarikoen bitartez plazak ehunduz. Emakumeen potentzialtasun *festibo*

44. Nora Alejos, Elorri Arin, Maite Arraiza, Jone Arrazola, Joana Aurrekoetxea, Leire Gotisolo, Marina Sagastizabal, Jone Larrauri eta Haizea Goitzen gogoetak jaso dira eta horretarako gako izan dira parte diren (edo izan diren) kolektibo hauen esperientziak: Lapurdiko Altxa Neskatxa, EHZ-Gune Ubelak, Oñatiko Pototak, Lekeitioko Potxuak Martxan, Gasteizko zein Donostiako Bilgune Feminista, Iruñeko Farrukas, Bilboko Kaskagorri Konpartsa, Donostiako Piraten baitako Sardiñerak eta Talaia, eta beste. Horiez gain, Baionako Bortizkeriaren aurkako taldea, Gora Iruñea!, Donostiako Kafeta Feminista, Oihu-K zein Sare Lesbianistakoen ekarpenak ere jaso dira.

politikoa argi ikusten dugu ohol-tza gainean, kontzertuko lehen lerroan, plaza erdian dantzan, bertsotan zirikatzaile-lanak egiten, kaian edo errekan elkarrekin bainuak hartzen, talogintzan, txupina jaurtitzen... edota gustura eta aske sentitzen garen edozein txoko eta unetan. Zeintzuk dira bada, festetan aurkitzen ditugun gorputz kolektibo eta politiko feministak<sup>45</sup>? Areago, feminista izatea munduan egoteko modu bat bada, festetan egoteko (edo ez egoteko) modu bat ere bada, festak bizitzeko manera(k) eta bertan sortzen diren harremanak kudeatzeko eta esperimentatzeko era(k).

Abiagune den sarrera honetan eskuartearen duzun testu-bilduma kokatu nahi izan da. Narrazio desberdinen artean festa-politika feministetan eta jai-eredu feministetan arakatzeko mapa (amaitu gabea) sortu nahi izan da. Mapa orenen errepresentazioa bilaketa bera bada, bilaketa honen funtsa ikertzen, hausnartzen eta ekiten jarraitzea da. Baita Estebanek liburuari egin dion hitzostean aldarri duen jaiaren eta dibertsioaren muturreko teoria feminista garatzen joatea ere.

Araketa horren parte egin dugu festen balio antropologikoa ulertzea, generoa eta genero-harremanen ulerkera malgu eta askeagoetatik abiatzea, pertsonen agentziari erreparatzea eta gorputz disidenteen dibertsioari aitortza politikoa egitea. Indarkeriari irmo erantzuteko lana mardula da, gatazkak mahai gainean daude.

Idatzietan presente daude festa-egitarau ez baztertzailen aldeko aldarri zein plaza parekideagoak lortzeko proposamen eta ekintzak. Gakoa ez da soilik plazak emakumez betetzea, baizik eta jorratzen diren gaietan, iruditegietan edota ekimen aniztasunean klabe feministetan aurrera egitea. Kultur adierazpide askotarikoen disidentzia-potentzialtasuna kalean (izan) da (beti).

Festa guztien artean kriseilu ditugu festa feministak, preseski xede horiekin sortzen direnak. Talde feministek jardunaldiak amaitzeko ospatzen dituztenak, Martxoak 8 gisako datetan ospakizunak, heteroarauari muzin eginez antolatzen diren lesbianen festak, festa transfeministak, herri-antzerki feministak, *Ladyfestak*, kultura feminista hedatzea xede duten jaialdiak<sup>46</sup>, musika-jaialdi edota bertso-saio feministak, festa-antolakuntza mistoetan dauden talde feministen jarduna<sup>47</sup>, Kafeta feministak, parodiak, herri-bazkariak, kanpaldiak, eta abar. Preseski horietan gorpuzten da biziki, diskurtsoez harago, balio hegemoniko eta patriarkalekiko disidentzia feminista. Horrek dakar dantza egiteko, festan egoteko, janzteko, erlazionatzeko, kontsumorako, espazioan egoteko, ligatzeko edota afektibitatea garatzeko bestelako

45. Gorputz politiko feministetan sakontzeko, ikus (Esteban, 2013).

46. Adibidez, hamaika urte daramatza Plazandreok talde feministak «Feministaldia! Kultura Feminista Jaialdia» urtero Donostian antolatzen. Arte eta politika garaikidearen kultur jarduera feministak lantzen dira sortzaile eta ekintzaileen topaleku den jaialdi ezagunean. Ikus: <<https://feministaldia.org/>> (kontsulta data: 2016-...).

EHBFren «Emakumeok Plazara» ekimena abian jarri zenean horri lotuta zenbait festa antolatu ziren.

47. Hala nola Bilboko Mamiki Konpartsa, bere txosna eta egitarau propioa duena, edota Donostiako Sardiñerak kofradia feminista.

moduetan esperimintatzeko aukera. Ez du horrek esan nahi espazio horietan beti plazeraren (eta lanen) bidezko kudeaketa egiten denik, ezta beti harreman-eredu justuagoak irudikatzen direnik; dena den, esperimintatzeko parada, eta, ondorioz, trebatzeko aukera ere sortzen da espazio horietan. Badira, hortaz, nolabait askatasun-abagune, eta hezurmamitutako bizipen horietako batzuk jaso nahi izan dira hemen.

Festan komunitateak, identitateak, aldarrikapenak, eta gorputzak daude dantzan. Testuinguru guztiak desberdinak dira oso: ikusi dugun moduan, badira herriko botere patriarkalen aurka borrokan daudenak, masifikatutako hirietan euren espazio aske, eroso eta seguruak eraikitzen daudenak, eremu alternatibo mistoetan prozesu eta aurrerapausoetan bidea egiten daudenak, edota nekazari-herri txikietan konplizitatez tokian tokiko ereduak sortzen dabiltzanak. Bideak hamaika badira, estrategiak, askoz gehiago.

## **BIBLIOGRAFIA**

- Abu-Lughod, Lila (1991): «Writing Against Culture», in Richard G. Fox, *Recapturing Anthropology: Working in the Present*, School of American Research Press, Santa Fe, 466-479.
- Ahmed, Sara (2015): *La política cultural de las emociones*, Universidad Nacional Autónoma de México, PUEG, Mexiko Hiria.
- Álvarez Molés, Pili (2012): *Movimientos sociales, relaciones de género y cultura. El caso de los gaztetxes en Euskadi*, Emakunde, Vitoria-Gasteiz, <[http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones\\_subvencionadas/es\\_def/adjuntos/B-3\\_2011.pdf](http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_subvencionadas/es_def/adjuntos/B-3_2011.pdf)> (Kontsulta-data: 2016-10-10).
- Álvarez, Amaia eta Lasarte, Gema (koord.) (2012): *Genero eta gorputza Euskal literaturan eta kulturaren*, EHUko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.
- Andrieu Sanz, Rosa eta Vazquez Antón, Karmele (1988): «Mujeres, fiestas y reivindicaciones», *KOBIE (Serie Antropología Cultural)* 3, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo.
- Ariño, Antonio eta García, Pedro (2006): «Apuntes para el estudio social de la fiesta en España», *Anduli Revista Andaluza de Ciencias Sociales*, 6, Editorial Universidad de Sevilla, Sevilla, 13-28.
- , (2012a): «Introducción», *Métode*, 75, *El Gen Festivo*, 2012ko udazkena, <<http://metode.cat/es/Revistas/Monografics/El-gen-festivo/Introduccio-El-gen-festiu>> (Kontsulta-data: 2016-10-10).
- , (2012b): «La Fiesta como patrimonio cultural», *Métode*, 75, *El Gen Festivo*, 2012ko udazkena, 89.
- Bullen, Margaret (2005): «Eskubide unibertsalak ala kultur berezitasuna: ikuspegi antropologiko bat», in Gorka Moreno, *Bidasoako Alardeak: Herria versus Hiria*, UEU, Bilbo, 7-27.

- Bullen, Margaret, eta Hernández, Jone (2010): *Antropologia Feminista, Emakume eta Gizonen Berdintasunaren Gaineko Masterrera*ko sortutako materiala, UPV/EHU.
- Bullen, Margaret eta Kerexeta, Xabier (2013): «Genero-indarkeriaren erakundetzea Bidasoaldeko alardeetan», *Ankulegi*, **17**, 11-28.
- Bullen, Margaret eta Egido, José Antonio (2003): *Tristes espectáculos: las mujeres y los alardes de Irun y Hondarribia*, Euskal Herriko Unibertsitatea Argitalpen zerbitzua, Bilbo.
- Butler, Judith (1990): *Gender Trouble. Feminism and the subersion of identity*, Routledge, New York.
- Castillo, Isa eta Retolaza, Iratxe (koord.) (2013): *Genero-ariketak. Feminismoaren subjektuak*, Edo! argitaletxea, Donostia.
- Connell, R.W. (1987): *Gender and Power. Society, the Person and Sexual Politics*, Stanford University Press, Stanford.
- , (1999): «Making gendered people: Bodies, identities, sexualities», in M. Marx Ferree, J. Lorber eta B.H. Hess (arg.), *Revisioning gender*, Sage Publications, Kalifornia, 449-471.
- Jolly, Susie; Cornwall, Andrea eta Hawkins, Kate (arg.) (2013): *Women, Sexuality and the Political Power of Pleasure*, Zed Books, Londres/New York.
- Cucó Giner, Josepa (1995): *La amistad: perspectiva antropológica*, Icaria, Bartzelona.
- Del Valle, Teresa (1988): *Korrika: rituales de la lengua en el espacio*, Anthropos, Bartzelona.
- , (1997): «La memoria del cuerpo», *Arenal. Revista de historia de las mujeres*, **4**(1), 59-74.
- , (2003): «Introducción», in Margaret Bullen eta José Antonio Egido, *Tristes espectáculos: las mujeres y los alardes de Irun y Hondarribia*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo, 15-18
- Del Valle, Teresa (koord.); Apaolaza, Jose Miguel; Arbe, Francisca; Cucó Josepa; Díez, Carmen; Esteban, Mari Luz; Etxeberria, Feli; eta Maquieira, Virginia (2002): *Modelos emergentes en los sistemas y las relaciones de género*, Narcea, Madril.
- Delgado, Manuel (2004): «Tiempo e identidad. La representación festiva de la comunidad y sus ritmos», in Roldán Jimeno Aranguren eta Jose Ignacio Homobono Martínez, *Fiestas, rituales e identidades*, *Zainak*, **26**, Eusko Ikaskuntza 77-98.
- Díez, Carmen (1999): «Sistemas de género, desigualdad e identidad nacional», in Albite, Pedro (koord.) *et al.*, *Sociedad vasca y construcción nacional*, Gakoa, Donostia.
- Downes, Julia; Hanson, Karis eta Hudson, Rebecca (2016): *Salvage: Gendered Violence in Activist Communities*, Footprint Workers Co-op, Leeds, Erresuma Batua.
- Durkheim, Émile (1984) [1912]: *Las Formas Elementales de la Vida Religiosa*, Akal, Madril.

- EMAGIN Dokumentazio eta Ikerkuntza Zentro Feminista (2013): *Beldurak gurekin jai! Ekin autodefentsa feministari!*, Emagin Elkarte, Andoain.
- Epelde Pagola, Edurne; Aranguren Etxarte, Miren eta Retolaza Gutierrez, Iratxe (2015): *Gure Genealogia Feministak. Euskal Herriko Mugimendu Feministaren Kronika Bat*, Emagin Elkarte, Andoain.
- Esteban, Mari Luz (2004): *Antropología del cuerpo. Género, itinerarios corporales, identidad y cambio*, Bellaterra, Bartzelona.
- , (2012): «Generoa, gorputza eta kultur identitate bizituaren analisia, euskaltasuna berrirakurtzeko ahaleaginean», in Amaia Álvarez eta Gema Lasarte (koord.), *Genero eta gorputza Euskal literaturan eta kulturaren*, EHUko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo, 29-47.
- , (2013): «Gorputzak eta politika feministak. Feminismoa gorputz gisa», in Isa Castillo, eta Iratxe Retolaza (koord.), *Genero-ariketak. Feminismoaren subjektuak*, Edo! argitaletxea, Donostia, 169-204.
- , (2015): «Euskal feminismoa eta ezagutzaren zirkuituak: mugimendua, unibertitate eta emakumeen etxea», in B. Biglia, O. Curiel eta M.L. Esteban, *Ikerkuntza Feministarako epistemologiari eta metodologiari buruzko gogoetak. Lan Koadernoak/Cuadernos de trabajo*, 67, 37-48, HEGOA-UPV/EHU, Bilbo.
- Esteban, Mari Luz eta Hernández García, Jone M. (2016): *Etnografía feminista Euskal Herrian. XXI. mendera begira dagoen antropologia*, UEU-EHU, Bilbo.
- Euskal Herriko Bilgune Feminista eta Emagin Elkarte (2014): *Festa dezagun gaurdanik geroa*, Autoedizioa [DVD], Emagin, Andoain.
- Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxa (EMM) (2016-11-18/19): *Indarkeria matxista birpentsatzen: feminismitik erantzunak martxan!* jardunaldiak, Donostia.
- FARAPI koop. Elkarte (2009): *Gipuzkoako lurralde historikoko jaiet buruzko azterketa, generoaren ikuspegitik*, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Kirol eta Kanpo Ekintzako Departamendua, Donostia.
- Fernández de Larrinoa, Kepa (1997): *Mujer, ritual y fiesta. Género, antropología y teatro de carnaval en el valle de Soulé*, Pamiela, Iruñea.
- Francis Mor, Ana (2013): «Laughter, the Subversive Body Organ», in Susie Jolly, Andrea Cornwall eta Kate Hawkins (arg.), *Women, Sexuality and the Political Power of Pleasure*, Zed Books, Londres/New York.
- Gamarra, Garikoitz (2012): «Bilbao Mutante. Ciudad, ideología y fiesta», in Andeka Larrea (koord.), *Euskal Hiria. Reflexiones sobre la ciudad y las ciudades vascas*, ex]- Liburuak, Bilbo 273-321.
- García Idiákez, Mikel (2014): «Jai herrikoiak. Eraldaketa sozialerako tresna», *Argia*, 2.421, 2014-06-29.
- Gil, Silvia L. (2011): *Nuevos feminismos. Sentidos comunes en la dispersión*, Traficantes de Sueños, Madril.



- Hierro, Graciela (2003): *La ética del placer*, Universidad Autónoma de México, Mexiko Hiria.
- Hobsbawm, Eric (1986): «Introduction: Inventing Traditions», in E. Hobsbawm eta T. Ranger (arg.), *The Invention of Tradition*, Cambridge University Press, Cambridge, 1-14.
- Ibarguren, Leire (2010): *Nolako umorea egin nahi dugu emakumeok arte eszenikoetan? Emakumeak, ohola eta umorea*, Master Amaierako Lana, Ikasketa Feministak eta Generokoak Unibertsitate Masterra (UPV/EHU), <<http://www.bertsozale.eus/eu/generoa/dokumentazioa/artikuluak/2009%20Leire%20Ibarguren-Emakumeak%20oholtza%20eta%20umorea.pdf/view>> (Kontsulta-data: 2016-10-10).
- Irureta, Onintza (2015): «Indarkeria matxista. Pankartaz harago ekiteko ordua», *Larrun*, **204**, 2015eko abendua.
- Joxemi Zumalabe Fundazioa (2014): *Dabilen harriari goroldiorik ez. Militantziaz eta horizontaltasunez hausnartzen*, Joxemi Zumalabe Fundazioa, Bilbo.
- Juliano, Dolores (1992): *El juego de las astucias: mujer y construcción de modelos sociales alternativos*, Horas y Horas, Madril.
- Lagarde y de los Ríos, Marcela (2000): *Claves feministas para la autoestima de las mujeres*, Horas y Horas, Madril.
- Leizaola, Aitzpea (2013): *Abordatzera!*, dokumental etnografikoa.
- Lorde, Audre (1984): *Sister Outsider: Essays and Speeches*, Crossing Press, Berkeley.
- Mahmood, Saba (2004): *Politics of Piety: the islamic revolution and the islamic revolution and the feminist subject*, Princetion University Press.
- Martín Casares, Aurelia (2006): *Antropología del Género. Culturas, mitos y estereotipos sexuales*, Cátedra, Madril.
- Martínez Portugal, Tania (2015): *La violencia sexista en colectividades sociales y políticas de izquierdas: casos y procesos de resiliencia de mujeres activistas*, Master Amaierako Lana, Ikasketa Feministak eta Generokoak Masterra (UPV/EHU).
- Maqueira D'Angelo, Virginia (1998): «Cultura y Derechos Humanos de las mujeres», in P. Pérez Cantó (ed), *Las mujeres del caribe en el umbral del 2000*, Dirección General de la Mujer, Comunidad de Madrid, Madril, 171-203.
- , (2001): «Género, diferencia y desigualdad», in Elena Beltrán eta Virginia Maqueira (arg.), *Feminismos. Debates teóricos contemporáneos*, Alianza Editorial, Madril, 127-190.
- Mauss, Marcel (1991): «Ensayo sobre los dones. Motivo y forma del cambio en las sociedades primitivas», in *Sociología y Antropología*, Tecnos, Madril, 1991 [1.a frantsesez, 1923/24], 153-263.
- Moral, Beatriz (koord); Bullen, Margaret; Kerexeta, Xabier; Lafita, Savina; Loza, Silvia eta Maceira Ochoa, Luz, (2014): *Emeki-emeki berdintasunezko danborradarantz/Paso a paso hacia una tamborrada en igualdad*, Donostiako Udala, Berdintasun Bulegoa, Donostia.

- Muelas de Ayala, Laura (2015): *El placer como proceso creativo en la transformación feminista*, Master Amaierako Lana, Ikasketa Feministak eta Generokoak Unibertsitate Masterra (UPV/EHU), <<http://hdl.handle.net/10810/16509>> (Kontsulta-data: 2016-10-10).
- Ortner, Sherry B. (2006): *Anthropology and Social Theory: culture, power and the acting subject*, Duke University Press, Durham.
- Platero, Raquel [Lucas] (2012): *Intersecciones: cuerpos y sexualidades en la encrucijada. Temas Contemporáneos*, Edicions bellaterra, Bartzelona.
- Pujol, Adriá (2006): «Ciudad, fiesta y poder en el mundo contemporáneo», *LiminaR. Estudios Sociales y Humanísticos*, IV. liburukia, **2**, 36-49, Mexiko.
- Rich, Adrienne (1986): *Compulsory Heterosexuality and Lesbian Existence*, <<http://people.terry.uga.edu/dawndba/4500compulsoryhet.htm>> (Kontsulta-data: 2016-10-10).
- Jimeno Aranguren, Roldán eta Homobono Martínez, Jose Ignacio (2004): *Fiestas, rituales e identidades*, *Zainak*, **26**, Eusko Ikaskuntza.
- Roma, Josefina (1996): «Fiestas: Locus de la iniciación y de la identidad», in Joan Prat eta Angel Martínez (arg.), *Ensayos de Antropología Cultural: Homenaje a Claudio Esteva Fabregat*, Ariel, Bartzelona, 204-214.
- Rubin, Gayle (1989): «Reflexionando sobre el sexo: notas para una teoría radical de la sexualidad», in Carole S. Vance (konp.), *Placer y peligro. Explorando la sexualidad femenina*, Talasa, Madril, 113-190.
- Scott, Joan W. (1996): «El género: una categoría útil para el análisis histórico», in Marta Lamas (konp.), *El género: la construcción cultural de la diferencia sexual*, PUEG, Mexiko, 265-302.
- Segalen, Martin (2005): *Ritos y rituales contemporáneos*, Alianza Editorial, Madril.
- Spade, Joan Z. eta Valentine, Catherine G. (koord.) (2004): *The Kaleidoscope of Gender: Prisms, Patterns and Possibilities*, Sage Publications, Los Angeles.
- Stolcke, Verena (2004): «La mujer es puro cuento: la cultura del género», *Estudios Feministas. Florianópolis*, **12**(2): 26, 77-105.
- Turner, V. (1982): *From Ritual to Theatre*, Paj Publications, New York.
- Vance, Carole S. (1989): «El placer y el peligro: hacia una política de la sexualidad», in Carole S. Vance (konp.), *Placer y peligro. Explorando la sexualidad femenina*, Talasa, Madril, 9-49.
- Velasco, Honorio M. (2012): «Calendarios Festivos. Las fechas señaladas y los ciclos temporales», *Métode*, **75**, *El Gen Festivo*, 61-65.
- Wittig, Monique (2005) [1980]: *Pensamiento heterosexual y otros ensayos*, Egales, Bartzelona.
- Zabala, Begoña (2008): *Movimiento de mujeres. Mujeres en movimiento*, Txalaparta, Tafalla.
- Zabala, Begoña «Siete miradas feministas a la fiesta» (iturri ezezaguna).